

Erri guziya garretan zeguen
¡Ura suaren indarra!
Leku denetan oju tristeak
Antziya ta deadarra:
Gero lurrera amildutzen zan
Labe artako sugarra.
Zeñak zabaltzen zuen geiago
Ikara eta negarra.

Momentuartan biyotz danetan
Ala sartu zan tristura .
Estu zebiltzan, beso zabalka
Laguntza ezke zerura
Jaungokoari erregutubaz
Bakoitzak bere modura, ...
Munduban baldin traitzerik bada
¡Jesús! trantzia zan ura.

Ura bai zala Donostiako
Juiziyoko azken eguna,
Zeñek geroztik oroituziak
Senti arazten diguna;
Aitak semea ezin salbatu.
Ezin lagunak laguna,
Galdurik bertan zenbait aberatz
Eta pobreren fortuna.

Gero alako ichuran berriz
Ikusirikan erriya,
Biyotza penak urratxen zuen
Ain zegon penagarriya,
Ordu guchiyan sua ta urak
Purrukaturik guziya ,
Zirudiela Jaunak beraren
Eskuetatik utziya.

VICTORIANO

IRAOLA.

GUDA, GUDARIAK ETA BEREN ITZ-BIDEAK

POESIA PREMIADA CON LA PLUMA DE ORO EN LOS JUEGOS FLORALES
DE SAN SEBASTIAN

¿Soldadu oiek basorik baso
Zer egitera dijoaz,
Beren banderak zabaldu eta
Atabalak orla joaz?

I.

Gure errira zergatik diran
Etsai gaiztoak agertu,
Goazen gu ere, goazen segiran
Geranak gosoz elkartu,
Aintziñetako erramu ostoa
Bat ez dediyen igartu.

Utsi ditzazu nekazariya
Utsi laya ta ailtzurra,
Eztu ta larri bada erriya
Balitz zerbaiten beldurra
Fedez beterik gordeko degu
Geren jatorrizko lurra.

Sortzen diranak porrokatzeko
Lantza xorrotzak badira,
Eta zer geran oroitutzeko
Guazen guztiyok mendira...
-¿Zure begiko garrak zergatik
Orla itzaldutzen dira?

— Ditubi aurcho ¡maite izarrak!
Bi zeru dira ederrez,
Ayek ni gandik laja bearrak
Nuak estu ta beldurrez,
Zeren geiyago ikusitzia
Ez dedan izango errez.

Nere emazte eta umeaz
Beti zoraturik nago,
Bizi gerata alkar maitez
Zeruan bezin naiyago...
¿Aiek utsi ta nola joango naiz
Ez badet ezer geiyago?
-Azko da eta, goazen agudo
Utzirik erabat dudak ,
Izan ez dedin berandu gero,
Gogor gordetzera mugak,
Geren bandera eskudatuaz
Irabazitzaera gudak.

II.

Sutumpen otsa, burni zatiyak
Jirabiraka su ta gar,
dabiltzan ontan bi gerrariyak
Ichumenduak ¡zer azkar!

Bildutzen dira koraje aundiz
Purrukatutzera alkar.

Errekak ere jah! Jaunjustubal
Odolez daude beteak,
Zeru azpiya keak beztuba
Illez extaliyak keak,
¡Orla gudatzen dira gizonak
Iñoix ikusi gabeak!

Artean ketan ikuzten dira
Ibar, eche ta maztiyak,
Doi doi noizik bein chingar argira
Erreta edo auziyak
Ezertarako bearrik gabe
Alper alperrik guziyak.

Suerteza ezin erabakirik
Legoiyak bezin furiyan,
Biurtzen dira indar beterik
Berriz bigarren aldiyan,
Mentzutu edo bertan galtzera
Gutziz koraje aundiyan.

¡Mentzutudegu! kontra ziranak
Zalantzan dirade asi,
Ezin geyago eginda denak
Oso dutenian etzi
Dijoaz armaz lur eztafitzen
Ikaratuak igesi.

Orain eskerrak Jaungoikoari
Eman zaizkagun lenbizi,
Eta ondoren giyariyari
Duen bezela merezi
Zeren gaur guda balioso bat
Oroipen dan irabazi.

III.

Urrez jantzi ta agai luzeak
Ikuzten dira erriyan,
Banderaz eta lorez beteak
Zinta politak erdiyan,
Aize aldera denak jostatzen
Gutziz graziya aundiyan.

Musika eta kanpanen otsak,
Balkoi apañian damak,
Pañuelo churiz agurka, pozak
Zoratu nayian danak,
Orla dabilitza gozoz beteak
Erri guziyan diranak.

¡Ara non diran! ara aurretik
Guziyen agintariya,

Jende azkarra bere ondotik
Gazte ederra guziya,
Kalian bete , betian datoz
Jendez eztafiyak iya.

Erriko jende berdin gabea
Ikusitzen da onela.
Lore politez beren bidea
Eztafitutzen dutela,
Zerutik euri jasaren gisa
Jaizten balira bezela.

¡Zer zoramena! Pozaren otsa
Urrutira da aditzen,
Gozoz beterik diña biyotza
Nola bai duen arkitzen,
¡Ez dira azko burniz lenago
Galdu diranaz kupitzen!

IV.

Bukaturikan alegrantziyak
Lenaz entzuten ziranak,
Orain arkitzen dira guziyak
Gozoz ibildu diranak
Indarrrik gabe, zeren itzaldu
Diran lengo su dianak.

Jende guziya geroztik dago
Kanpoan eta kalian,
Sosegatuak ezin geiago
Eta guztizko pakian,
Ezer ez balitz, pasa bezela
Bakoitza bere lanian.

Ontan andre bat ¡penagarriya!
Ongi negarrez asia ,
Kalian dago beltzez jantziya
Triste ta penan betia,
Aur bat besoan dubela eta
Ezkutik berriz bestia.

Urrikarriyak ikuzten dira
Sufrimentuben meriyo,
Gelditzen bada iñor begira
Eta entzuten badiyo,
Alako boza triste bbatekin
Onela esaten diyo:

«Aur aben aita gerrak galdu du;
»Ama penak iya illa,
»Jaungoikoaren izenez dabill
»Limonascho baten billa»